

2-Merkatu segmentazioa

2.1. Merkatu masiboa (denentzako)

Geo-Segur-ek jende askori balio dio. Jendeak bere gauzak kontrolatu eta segurtasunean egon nahi du. Gure pegatina edo chip lokalizatzailerak eta mugikorrek aplikazioak edozein pertsonak erabil ditzake.

Mugimendu arraroak badaude, aplikazioak abisua ematen du. Hau edonorentzat erabilgarria da.

2.2. Merkatu-nitxoa (bezero bereziak)

Badago jende edo enpresa asko segurtasun handiagoa behar duena, adibidez:

- Logistika-enpresak
- Auto-tailerrak
- Balio handiko gauzak dituzten bezeroak

Hauei zerbitzu zehatzagoa eta profesionalagoa eskaintzen diegu: abisu aurreratuak, datuen berreskurapena, mugimenduaren kontrol sakonagoa...

2.3. Merkatu segmentatua (behar ezberdinak dituzten taldeak)

Geo-Segur-ek pakete ezberdinak izan ditzake, bezero motaren arabera:

- Oinarrizkoa → chip-a + denbora errealeko jarraipena
- Premium → historia, alarma aurreratuak, datu berreskurapena
- Enpresentzako → gailu asko kontrolatzeko sistema + laguntza teknikoa

Horrez gain, denda fisiko bat ere izango dugu bezeroak laguntzeko.

2.4. Dibertsifikatutako merkatua (oso bezero desberdinak)

Geo-Segur-ek bezero mota oso ezberdinak izan ditzake:

- Pertsona arruntak, lokalizadore txikia behar dutenak

- Enpresa handiak, segurtasun sistema osoagoak behar dituztenak

Bi talde hauek ez dute antzekotasun handirik, baina enpresak biei eskaintzen die balioa.

2.5. Plataforma edo merkatu aldeaniztuna (bi alde elkarren beharra dutenak)

Plataforma motako merkatu batean bi bezero talde elkarri lotuta daude.
Geo-Segur-en kasuan, hau izan liteke:

- Erabiltzaileak → txipa eta aplikazioa erabiltzen duten pertsonak
- Dendak eta tailerrak → sistema instalatu edo saldu nahi duten establezimenduak

Zenbat eta erabiltzaile gehiago egon, orduan eta denda gehiagok nahi dute saltzea; eta zenbat eta denda gehiago, erabiltzaile gehiago erakartzen dira.

2.2- Bezeroen segmentua

Nori saldu

- Gure produktua segurtasuna eta lasaitasuna bilatzen duten pertsonen salduko diegu. Oso despitatua den jendeararentzat eta gauza asko galtzen dituenarentzat ere baliagarria da. Edozeinek erabil dezake bere objektu baliotsuak babesteko, hala nola bizikleta, telefonoa, ordenagailua, motxila, karterak edo giltzak. Beraz, gure bezeroak izango dira ikasleak, langileak, bidaiariak, familiekin edo edozein edadeko jendea beraien gauzak galdu edo lapurtuak izan ez daitezen, batez ere:

Bezero motak

-Haurrak:

-Erraztasuna dute gauzak galtzeko adibidez jostailu baliotsu bat edo bizikleta bat.

-Gurasoek lasaitasunarekin erosiko dute gauzak.

-Nerabeak:

-Egunero mugikorra, giltzak, motxila... eramaten dituzte.

-Askotan mugimenduan daude: ikastetxea, kirola, lagunak, bidaiak...

-Helduak:

-Mugikorra,maleta,kaskoak erabiltzen dituzte eta erraztasuna dago galtzeko

-Gainera askotan lanera joateko garraio publikoa erabiltzen da,beraz,mugimendu asko dago.

-Adineko pertsonak:

-Askok memoria arazoak izaten dituzte

-Horregatik erraztasun handia dute ere gauzak galtzeko eta senideak gure gure aplikaziotik ahal dezaketa beraien objektu garrantzitsuak bilatu edo lokalizatu.

-Gainera,lapurketa gehienak,behaietaz aprobetxatuz,adineko pertsonetan izaten dira.

-Senide eta familiarrei lasaitasuna heman.

-Enpresak:

-Enpresa askoren kezka beraien langileen galdutako objektuak izaten dira, horregatik gure aplikazioak hori dena saiestuko du.

Bezeroen ezaugarriak:

Erraztasuna eta funtzionaltasuna bilatzen dituzte, teknologia sinplea erabiltzen dute eta produktua fidagarria, txikia eta diskretua izatea nahi dute. Gainera, segurtasun pertsonala eta datuen babesa baloratzen dituzte.Hontaz aparte,lapurtuak izateko beldurra kentzea nahi dute.

Segmentua zehaztu

- Gure segmentu nagusia dira 16–45 urte bitarteko ikasle eta hiri-inguruneko langileak, egunerokoan mugikorra, motxila edo bizikleta/patinetea erabiltzen dutenak.

- Bigarren segmentu garrantzitsua dira adineko pertsonak edo memoria-arazoak dituztenak, eta euren gauzak galtzearen beldur direnak, baita haien senideak ere.

Ingurune espezifikoak

- Gure produktua ingurune urbano eta teknologikoan erabiltzeko pentsatua dago. Jende askok mugikorrak eta objektu baliotsuak daramatzan lekuetan oso erabilgarria da: hiriak, ikastetxeak, lantokiak eta bidaietan.
- Gainera, gure produktuak teknologia adimenduna (GPS, sentsoreak, aplikazio mugikorra) erabiltzen duenez, ingurune digital eta konektatu batean kokatzen da. Horrek laguntzen du hiri seguruagoak eta jasangarriagoak sortzen, eta lapurretak edo galera egoerak batez ere gutxitzen.

Egoera zehatzagoak:

- Hiri ingurunean: Ikastetxean, etxean, kalean zure objektu garrantzitsuenak galtzen dira. Lapurketa asko egon daitezke ere
- Bidaietan: Mobila, motxila edo bidaietara ematen dezun kamara
- Hiri handietan eta mugikortasun handiko eremuetan (donostia, bilbo...), jendeak mugikorra, bizikleta eta motxila daramatza ia beti. GeoSegur pegatinak objektu horietan jarrita, lapurreta edo galera kasuan berehala aurkitzeko aukera ematen du.